



## USURBIL, 1936. TESTUINGURU HISTORIKOA

### **SARRERA**

Gipuzkoan gaineko garaipenezko martxa arranditsua, ia 40 urteko isilaldia eta XXI. mendea, Memoria Historikoa berreskuratzeko abiapuntutzat. Horixe izan da gure lurraldean bizi izan dugun 36ko Gerrarekiko ohiko joera. Baina dena ez zen gertatu guri kontatu diguten bezala. Eta ez digute kontatu benetan gertatu zen guztia.

Gipuzkoari dagokionez, Eibar, Irun, Elgeta, Donostia... historian tarte bat egin zaie 1936-1937 urteetako batailengatik, baina ez ziren bakarrak izan. Usurbilgo frontean dauden San Esteban, Zubietagain, Andatza eta beste leku batzuetan duela 80 urte eta lehenagoko gerren aztarnak dautza, denboraren iraganak eta landaretzak oroimen kolektiboaren ahanzturan lurperaturik.

Horregatik sortu zen proiektu hau, gerra-eszenatoki horiek biziberritzeko asmoz, 36ko Gerra ezagutarazteko eta Usurbilen gertatu zen guztia ondare eta arkeologia alorretan gizarteratzeko, zabaltzeko.

Abiagune historikoa, Emilio Molak, Francisco Francok eta Gonzalo Queipo de Llanok buru zituzten militar faxistek 36ko uztailean estatu-kolpea ematen saiatu izana esan dezakegu. Matxinada hark Estatu osoan —eta Gipuzkoan bereziki— ezkerreko alderdi politikoaren erantzuna probokatu zuen. Horrekin hasi zen “Gipuzkoako Kanpaina” Euskal Herrian.

### **GIPUZKOAKO KANPAINA**

Sarreran adierazi bezala, uztailaren 18tik abiatuko gara. Egun horretan militar batzuek estatu kolpea eman nahi izan zuten, gobernu errepublikarra boteretik kentzeko. Artean gehiengo osatzen zuen ezkerreko herri-antolaketari esker, matxinada geldiaraztea lortu zuten.

Donostian altxatu ziren kolpisten aurkako lehen erresistentzia-guneak: hiriko kaleetan lehenik eta, ondoren, Loiolako kuarteletan. Astebetean, gobernu errepublikarrarekin hautsi nahi zuten militarrek neutralizatzea lortu zuten, adore eta duintasun apartaz, ezkertiarrek armamenturik ez zutelako.

Bitartean, *Cayueta* eta *Malcampo* zutabe eskuindarrek Gipuzkoa hegoaldetik aurrera segitzen zuten, Goierri aldetik igarota, Tolosara bidean. Ipar-ekialdeko sektorean, uztail amaieran Beorlegi Oiartzunez jabetu zen, Irungo muga helburu, Molak adierazia baitzuen huraxe zela lehentasunezko xede.

Abuztuan, militarrek Tolosaraino heldu badira ere, Oiartzunen gelditu da kolpisten ofentsiba, Irun parean muga ixteko helburuz. Tolosa okupatu zuten egunean, Erlaitz eta Aiako Harriko batailak piztu dira, Irun hegoaldean. Horrek hiru asteko borroka gogorra ekarri zuen, hiria antifaxista guztien oroimenean sendotuz. Ez alferrik, lehorreko, itsasoko eta aireko erasoaldiei gogor egina baitzieten buru.

Gipuzkoa erdialdean, ordea, abuztuaren erdialderako, gudu-lerroa Tolosan barrena Andoaineraino hurbildurik, Belkoain eta Buruntza mendien azpian kokatu dira tropak, Usurbiletik gertu. Eta abuztuaren amaieran, Andazpean dagoen herrian hasi ziren lehen mugimenduak.

## **USURBILGO FRONTEA. ANDATZA**

Gerra frontea gertu zegoela, Gipuzkoako Gerra Komisariak Andatza mendian eta inguruetan gudariak antolatu eta ezartzea erabaki zuen, leku haiek Gipuzkoako "Hegoaldeko fronte" haren parte zirelako.

Horrela, abuztuaren 25erako, Usurbilgo Herri Fronteak dozenaka gudari bilduak zituen "Usurbilgo Milizien Kuartelean". Kuartel hark milizianoak eskuadratan antolatzeke ardua zuen, hara: gerra-komite bat, hiru miliziano-eskuadra, gidarien eskuadra bat eta zerbitzu osagarrietako eskuadra bat.

Número de orden	NOMBRE	CARGO	Número de servicios prestados	IMPORTE Pesetas
	Suma anterior			2380 00
35	Jose M <sup>e</sup> Furundarena	Miliciano	7	70 00
36	Candido Telleria	"	5	50 00
37	Mauricio Aburuz	"	4	40 00
38	Mamuel Goeraga	"	4	40 00
39	Francisco Ilizarramendi	"	7	70 00
40	Jose Ioucha	"	7	70 00
41	Jose M. Furundarena	"	7	70 00
42	Andres Martinez	"	7	70 00
43	Sabino Zuruzmendi	Com <sup>te</sup> Guerra	7	70 00
44	Nicolas Aispurus	"	7	70 00
45	Francisco Mugica	"	7	70 00
46	Guillermo Murguia	"	7	70 00
	SUMA TOTAL			3140 00
<p>IMPORTA esta nomina la cantidad de TRES MIL CIENTO CUARENTA PESETAS.</p> <p>Usurbil 31 de agosto de 1936</p> <p>El Comisario Guerra Usurbil</p> <p><i>Christophe Lopez</i></p> <p>REVISADO Y CONFORME EL COMISARIO</p>				

Usurbilgo Gerra Komisariakoan Nomina, abuztuaren 25-31koa.  
CDMH PS BILBAO, 64

Gipuzkoa osoan faxistak gogor bultzaka ari zirenez, ordea, ahalegin guztiak ongi etorriak ziren: tropa berriak Andatzako sektorerara eta ertzetara lekualdatu zituzten. Hango hartan, irailaren lehen egunetik milizia hauek aurkeztu ziren: Milizia Antifaxista Langile eta Nekazarien (PCE) **1. Asarta Konpainia, Eraso Guardiak** (Bigarren Errepublikako Segurtasun eta Eraso Kidegoa), **Deustuko Unibertsitateko Miliziak** (PSOE-UGT) eta **Loiolako Euskal Miliziak** (EAJ-PNV).

El Suboficial FROILAN VIDAL que mandaba la Compañía que operó en Usurbil del 1º de setiembre al 16 del mismo, acredita:

Que habiendo caído herido el Miliciano de la 1ª Compañía de la Universidad de Deusto, BIAS EGUSQUIZA, fué llevado por dicho Suboficial a San Sebastian, ingresándolo en el hospital en estado grave, dos o tres días antes de la evacuación de la indicada Capital.

Y para que se pueda acreditar donde convenga firmo el presente certificado en Bilbao a veinticinco de noviembre de mil novecientos treinta y seis.



*Froilan Vidal*  
*noventa e*  
*300 pts*  
*comprue*

Irailaren 1etik 16ra Usurbilen ziharduen Konpainiako buru Froilan Vidal ofizial-ordearen agiria. CDMH, PS SANTANDER\_L 296 (1. eranskina)

Aipatutako miliziek Jose Iruretagoiena koronelaren zutabearen aurrean izan zuten, irailaren 5etik, Cayuela teniente koronelaren azpi-zutabea, 752 gizon zituen. Eguna joan, eguna etorri, tiroketa franko izan ziren etengabe. Halako batean, irailaren 17an, Errepublikaren aldeko tropek Andatza mendia magaletik atzera egin zuten, alde bietan baja ugari pairatuta.

Gertaera historiko horiek, gaur arte, dokumentu-erregistro askotatik iritsi dira, hala nola garaiko prentsarik, tropa-buruek igorritako gerra-parteen bidez, eta abar.

## EBIDENTZIA HISTORIKOAK, FROGA DOKUMENTALEN BIDEZ

### PRENTSA

Goian adierazi bezala, gerra zuzenean jarraitu ahal izateko iturri egokia garaiko prentsa zen. Milizianoek, jakina, erretaguardian eta herriguneetan lehen lerroan, milaka egunkari ale zabaltzen zituzten gerraren berri emateko.

Usurbilgo fronteari buruzko lehen erreferentzietako bat, abuztuaren amaieran (1936/08/30), Donostian argitaratzen zen "Frente Popular" egunkarian aurkitu genuen. Hortxe kontatzen da "mendigoizaleen" kapitaina, Kandido Saseta, Andatza mendian dagoela, kolpisten aurka eragingo duen erresistentzia antolatzen.

## EN LA PUNTA DE "ANDATZA"

# Hablando con Saseta, el pundonoso capitán de los mendigoizales

**"Estoy encantado con estos muchachos--nos dice--... Les sobra coraje y serenidad." "Errenderiarrak, pasaitarrak ta donostiarrak ondo dirala..."**

*1936ko abuztuaren 30eko Frente Popular egunkarian.*

Handik astebetera, irailaren 6an, Usurbil aldean tiroketa hasita, egunkari horrek bezperako batailari buruzko lehen kronika jaso zuen. Azalean eta lehen titular gisa, hau ondorioztatzen da:

*Borroka-fronteak: Andatza aldean Erreketeei indar leialek sekulako zigorra noziarazi zieten. Eraso bizi bati uko egin ziotenean, hogeita zortzi hildako eragin eta berrogeita hamar fusil bahitu zizkieten.*

Hasia zen Usurbilgo bataila (ofizialki, 1936ko irailaren 5ean). Hurrengo egunetan, gerra-parte, kronika eta erreportajeek lurraldeko (eta beste lurralde batzuetako) albistegiak bete zituzten.

Euskal prentsan, beste adibide bat "Euzkadi" egunkarian aurkitu dugu. Bilbon argitaratzen bazen ere, 36ko Gerrako lehen asteetako albiste gehienak Gipuzkoako gertaerei buruzkoak ziren. Iraileko lehen hamabostaldian, Usurbilgo frontean eta, zehazkiago, Andatza aldean izaniko erasoari buruzko kronika eta erreportajez beterik plazaratu zen,

## FRENTE DE COMBATE

# EN LA ZONA DE ANDATZA LOS REQUETES SUFRIRON UN DURO CASTIGO DE LAS FUERZAS LEALES

**AL RECHAZARLES UN ATAQUE ENERGETICO, SE LES OCASIONARON VEINTIOCHO MUERTOS Y SE RECOGIERON CINCUENTA FUSILES**

Frente Popular egunkariko irailaren 6ko titularra.



*Honela jaso zuen Euzkadi egunkariak Usurbilen izaniko borrokaren hasiera, irailaren 6an.*

Euzkadi-k argitaratu zituen gerrako albiste horietako batean, irailaren 9koan hain zuzen, Asaltoko Guardiako teniente zen Cecilio Gómez Álvarez jaunaren hileta plazaratu zen. Militar hark irailaren lehen hamabostaldian Usurbilgo frontean ziharduen borrokan (albistean Donostiako frontean hil zela nabarmentzen den arren), **2. eranskin**ean agertzen den dokumentuak erakusten duen bezala. Egun hartan, Usurbilgo sektorearentzako "gerra-partreak" honela zioen:

*“LASAITASUNA USURBILEN. Usurbil aldean, aurreko egunetan bezala, matxinoek zerbaitetan ari zirela ikusi dute gaur goizean. Etsaiak eraso egin zuen arren, indar gutxiz aritu zen. Miliziek eta Errepublikaren aldeko indarrek eman zieten erantzuna, aldiz, gogor-gogorra izan zenez, hori ikusirik errebeldeek beren ekintza eten egin zuten. Arratsaldean lasaitasuna nagusi zen fronte osoan, eta tiro andanaren bat besterik ez zen egin, eta garrantzirik gabeko gatazkatzak.”*

Ikusten denez, informazio-iturria eguneroko kronikak ohi ziren, subjektibotasun larriz zamatuak, baina gizartearen moralala altxatzea beste helbururik ez zutenak. Garai hartako prentsa idatzi desberdinen artean ohikoa zen berriemaileek bidaltzen zituzten "fronteko lehen lerroko gerra-partreak" berdinak izatea.

Ildo horretan, goian aipatutakoekin adinako informazio zabala ematen ez bazuen ere, hortxe zen *La Gaceta del Norte*, Bizkaitik mundura zabaldu eta Gipuzkoako gerra bertatik bertara kontatzen zuen beste hedabide bat. *Gazeta*-ko *En los frentes de Guipúzcoa* atalak agertzen zituen kroniketan, hainbat frontetan (iparralde, hegoalde eta mendebaldekoan, batik bat) gertatutakoaren egunerokotasuna jasotzen zuten. Gure kasuan, Usurbilgo fronteari dagokionez, egunkari horretan erreferentzia bat baino gehiago aurkitu ditugu. Horietako bat, ordena kronologikoan jarraituz, irailaren 8an aurkitu genuen, hara:

*Andatzako sektorean egin zen azterketa sakon batek emaitza onak eskaini zituenez, nahi zen fruitua bildu zen. Horrek, etsaiak aurki erretiratzea eragingo du, posizio horiek uztera behartuta egongo baitira.*

Ikusten denez, zehaztasun eskaseko informazio nahasia ematen da, fronteko berritasunik apenas daukana: egun horretan, seguruenik, ez zen mugimendu aipagarririk izango lehen lerroan.

1936ko iraileko bigarren ostiralean, aitzitik ez zen horrela gertatu. Hilaren 11n, *La Gaceta del Norte*-k, *En los frentes de Guipúzcoa* ohiko atalean, gerra-parte hau plazaratu zuen:

*Mendebaldeko frontean etsaiak bonbardaketari ekin zion Usurbil aldetik, baina gure artilleriak sendo erantzun zuen oraingoan, leialen abiazioak lagundurik. Matxinoak isilik gelditu ziren.*



*Cecilio Gómez jaunaren hiletaren berria, irailaren 9ko La Gaceta del Norte egunkarian.*

## **GARAIKO DOKUMENTAZIOA**

Nolanahi ere, gerrako gertakarien berri ez zaigu prentsa idatziaren bidez bakarrik helarazi. Iturri fidagarrienetako bat, duda izpirik gabe, bi bandoek zuzenean sortzen zituzten dokumentu mordoa izan da: gerra-egunkariak, mediku-partreak, tropen mobilizazioa, etab.

Informazio gehien ematen duen eta gertakariak hobekien zehazten dituen iturrietako bat, zalantzarik gabe, Gipuzkoako Gerra-Fronteen Egunkaria da: Iruñeko Komandantzia Militarera egunero bidaltzen ziren gerra-partearak, eta Emilio Mola jeneralak bertan jasotzen zituen. Usurbili dagokionez, eta Alfonso Beorlegi koronelaren Gerra-Egunkaria den arren, Jose Iruetagoiena koronelaren Zutabeak antolatu eta gorpuztu zuen herriaren kontrako erasoa.

Usurbilgo frontearen gaineko lehen erreferentzia irailaren 5eko, gaueko 22:20etan emaniko gerra-partean dago. Bertan, honakoa irakurtzen da (**3. eranskina**):

*“Beste zutabe batek aurrera egin zuen ANDATZA MENDIAN, baina lur malkartsu hartan egindako eragiketaren berririk ez dut. Ez dakit zenbat baja izan diren. Sinesteko moduko konfidentziek diotenez, etsaien artean bizkaitar ugari omen dago. Bihar aurrera jarraituko dugu.”*

Hurrengo egunetan, Usurbilgo fronteaz aipamen berriak egin ziren, Andatza mendiko gatazkei eta bajen zerrendari buruzkoak, batik bat. Bitxia da: hurrengo gerra-kronikak gogorrenak izango ziren, bi aldeen bajez ari garela. Hilaren 7ko gaueko partean honako hau irakurri dugu (**4. eranskina**):

*Iruetagoiena Zutabeak etsaiek kanoi-suaz eginiko kontraerasoa pairatu zuen, fusil-tiroak Andatzatik, baina etsaiari atzera eginarazi zitzaion. Bajak eragin zaizkio: Ortiz Eraso tenientearena tartean. Gure bajak, 28.*

Kolpistek Donostia okupatu zutenean, borroka areagotu egin ziren intentsitatez eta indarkeriaz. Lekuan lekuko borroka latzak izan ziren, eta plaza batzuk egun berean alde batekoek eta beste batekoek konkistatu eta birkonkistatu zituzten. Usurbilgo frontean gerra jarduera handieneko eguna irailaren 15a izan zen. Horrela dio kolpistek Iruñeko Kuartel Nagusira bidali zuten partearak (**5. eranskina**):

*Cayuela azpi-zutabeak aurrera egin du Andatzaren inguruko posizioak hartuz, etsaiek txarrantxaz eta artilleriaz sendo gotortutako erresistentziak gaindituta. Azpi-zutabe honetako bajak: 3 hildako eta 31 zauritu, horien artean Sáez Aranz kapitaina. Etsaiari harrapatutako materiala: 7,5eko Saint Chammond bi pieza eta errepidea konpontzeko tresnak.*

Ordurako, Usurbilen gaineko kontrol errepublikarraren amaiera iragarria zegoen, berehalakoa zen. Usurbilgo frontean gerra-jardueraren berri ematen zuen azken partea 16an eman zen, gauez, honela (**6. eranskina**):



*Iruretagoiena koronelaren indarrek Andatza mendia okupatu eta etsaiari harrapatu dizkiote 7,5eko bi kanoi, sei mosketoi, granadak eta esku-bonbak. Gure bajak: bi zauritu.*

Usurbilgo frontearen amaiera tragikoa gertu zegoen. Tropa kolpistek aurrera egitearen eta ondo defendatutako posiziorik ez izatearen ondorioz, matxinoek Usurbil eta Aginaga okupatu zituzten. Irailaren 18an aginte-postura iritsi zen bezperako jarduera-egunkarian (**7. eranskina**) jaso zen moduan.

Ikusten den bezala, kolpistek utzitako dokumentazioa ugari-ugaria, argi-emailea eta oso zabala da: batailaren kronika gertutik jarraitzeko aukera ematen du. Errepublika zaleena, ordea, ez zen gutxiago. Alderdi leialaren dokumentazioa askotarikoagoa da, egia da, borrokalariei dagokienez. Espainiako demokraziaren aldekoen "kaos burokratiko dokumentala" ezkutukoa zen, antolakuntza-sistemaren eraginez: sindikatu, alderdi politiko edo talde bakoitzak bere dokumentazioa kudeatzen zuen. Gipuzkoako frontea geldituta, komisariak beren eremuei zegozkien agiriak bateratu zituzten.

Halaz ere, bada hor dokumentu-funts ugaria, askotarikoa eta era guztietako edukiak biltzen dituena: milizianoen fitxak, mediku-partiak, mobilizazio-dokumentuak, arma-garraioak, eta abar.

Tropa kolpistek eta etsaiek zerbait bazuten komunean: egunero mediku-partea eman beharra, fronteko lerroan zauritu eta hildakoei zegokiena antolatzeko. Usurbilgo Miliziek, adibidez, Gipuzkoako Fronte Popularrean zeudela, oraino aurkitu ditugun hiru mediku-agiri, gutxienez, bidali zituzten irailaren 6, 7 eta 8an.

Lehenengoan (**8.eranskina**) 3 hildako eta 11 zauritu agertzen dira. Irailaren 7koan (**9. eranskina**) 14 lagun zauritu ziren, baina ez zen inor hil. Usurbilgo Milizien azken parte medikoak (**10. eranskina**) 5 bajako zerrenda bat jaso zuen: 3 zauritu eta, metrailaz harrapatu eta berehala, 2 hildako.

Alderdi errepublikarreko dokumentu-aniztasunaz ari garenean, tropen, munizioen... lekualdatze-agiriez eta zauritu, desagertu edo hildakoen espedienteen fitxa eta erregistroez ari gara. **1. eranskinean** ikusi dugun bezala, Froilan Vidal ofizial-ordeak, Alderdi Sozialistako Milizien Konpainiako buruak eta UGTk, Deustuko Unibertsitateko Kuartelekoak, Usurbilen jardun zuen irailaren 1etik 16ra. Edo Gipuzkoako Gerra Komisarioak egin zituen Mobilizazio Negoziatuaren erregistroak. Usurbilgo miliziei dagokienez, mobilizatuez 63 erregistro daude (**11. eranskina**); horien artean, 3 emakumeren dokumentazioa.

Dena den, alderdi errepublikarreko dokumentu-iturri handienetako bat, zalantzarik gabe, gerrako ordainleku eta kalte-ordainak indemnizatzeko sortutako dokumentuak dira, borrokan bajak izan zituzten familiei laguntzen zieten erregistroak direlako. Erregistro horien adibide dira **12. eranskina** eta **13. eranskina**, Hilario Retenaga Bengoak eta Jose García Aldaiak, hurrenez hurren, borrokan zauritutakoen ziurtagiriei dagozkienak.


Gaur egun, oraindik ere erregistro asko dago aurkitu eta ikertzeko. Era berean, jatorrizko dokumentazioaren zati handi bat gaur egunera arte iritsi ez dela aintzat hartu beharra dago, bai errepresalien beldurrez, paperak erre edo bota zituztelako, bai oraindik artxiboen behe aldeetan sailkatuak jarraitzen duelako.

2021eko azaroa


-----

## ERANSKINAK: DOKUMENTUAK

- 1. eranskina:** Deustuko Unibertsitateko kuarteleko Alderdi Sozialistaren eta UGTren Milizien Konpainiako buru zen eta irailaren 1etik 16ra Usurbilen jarduten zuen Froilan Vidal ofizial-ordearen egiaztatzea.  
CDMH, PS SANTANDER\_L 296



**2. eranskina:** Bizkaiko Gobernu Zibilaren dokumentua. Bertan agertzen da Jose Luis Gasconek 200 esku-granada eman zizkiola Cecilio Gómez tenienteari irailaren 7an, Usurbilgo frontean jardunez.



**3. eranskina:** Usurbilgo fronteari buruzko lehen aipamena Beorlegi koronelaren zutabe kolpistaren *Gipuzkoako Fronteen Operazio Egunkarian*. 1936ko irailaren 7ko 21:40an bidalitako parte.

AGMAV, 1227,60/22

T. O. 5-9-36 = 22<sup>h</sup>20 = n.º 115. 23/9

Cte. Qnta. Pamplona a Srte. E. Jto. Inte  
6 SEPT. 1936

Noticias esta fecha las siguientes:  
Columna Andoain iniciaron avance ocupando Monte Estenaga donde enemigo atrincherado ofreció fuerte resistencia contratacando con granadas mano.  
Otra columna avanzó sobre Monte Andatza, sin tener noticias resultado operación por abrupto terreno, denuncio números bajas. Confidencias fidedignas aseguran que entre enemigo existen fuertes núcleos vírcinos. Mañana prosigue avance.  
Columna errnal Beorlegui ocupó ayer noche Monte Zubelzu, penetrando en la mañana de hoy en Iruñ donde últimos elementos enemigos dedicados pillaje y saqueo incendiaron población y ofrecieron alguna

AGMAV.C.1227.60 / 22

4. eranskina: Usurbilgo fronteari buruzko bigarren aipamena Beorlegi koronelaren zutabe kolpistaren Gipuzkoako Fronteen Operazio Egunkarian. 1936ko irailaren 7ko 21:40an bidalitako parte.  
AGMAV, C.1227,60 / 29

De Pamplona      Of. Com. Nav.  
A Valladolid      Al Jefe Tte Ejercito N.

3<sup>o</sup> Transmitedo el 7 septiembre a las 21,40  
Recibido el 8 id a las 0,15

Clase Onesto      - 8 SEPT. 1936

Noticias esta fecha las siguientes:  
Columna Beorlegui ha ocupado en el día de hoy el Sairquibel, San Enrique y poblado Gaiñeburqueto. Columna Irueta Goyena supio en una batalla en un punto de terreno donde Andara rechazándose, causando bajas a enemigos entre ellas 7<sup>o</sup> de Araltó Ortiz. Nuestras bajas 28.

Decifrado  
Peter Glück

5. eranskina: Usurbilgo fronteko bataila latza, Beorlegi koronelaren zutabe kolpistaren Gipuzkoako Fronteen Operazio Egunkarian. 1936ko irailaren 15eko 21:10etan bidalitako parte.

AGMAV, 1227,60/46

Comandante Militar Pamplona 3<sup>o</sup>  
Reportado el 15-9-1936 a las 21,10  
Fuerzas Iruretagoyena han operado  
en dirección línea Oria 16 SEPT 1936  
Subcolumna Ratorre ha avanzado  
desde Iguelde ocupando Mendirrotz y Aratzia teniendo  
un muerto el teniente Gorospe  
y 4 heridos.  
La subcolumna Cayula ha avanzado  
ocupando posiciones próximas al  
Andatza venciendo resistencias enemigas  
fuertemente atrincheradas con alambradas  
y artillería. Por bajas esta subcolumna  
3 muertos y 31 heridos entre estos Capitan  
Saer Arana. Material cogido enemigo, 2  
piezas Saint Chammond de 7,5 y Amisilio  
reparación carretera Desfilado

AGMAV, C.1227,60 / 46

**6. eranskina:** Usurbilgo frontearen amaierako ekintzak, Beorlegi koronelaren zutabe kolpistaren *Gipuzkoako Fronteen Operazio Egunkarian*. 1936ko irailaren 16ko 21:15etan bidalitako parte.  
AGMAV, 1227,60/52

16-9-36 à las 21<sup>h</sup> 15.  
Cont: mil = Pamplona à Frol jefe Ejt<sup>o</sup> Forte. **39**  
Circunstancias hoy las siguientes fuerzas columna T<sup>o</sup> coronel los  
Acos. en reorganización.  
Fuerzas coronel Truceta Truceta ocuparon monte Andatza  
logrando vencer dos cañones 7,5 seis morteros  
granadas y bombas de mano, muertos bajos dos heridos.  
Desempleado.  
el Capit.  
J. Taboada

USURBIL

7. eranskina: Usurbilgo okupazioa, Gipuzkoako Fronteen Operazio Egunkarian Beorlegi koronelaren kolpistaren eskutik. 1936ko irailaren 17ko 22: 10ean bidalitako parte. AGMAV, 1227,60/54

T.O. "17-9-36" 22:10  
18 SEPT. 1936  
Pulencia  
Ch. Mta Pamplona a froal Ego mta  
Columna capitán Tejero de las fuerzas  
Aerias ha ocupado a las 19h Epa-  
bolmendi, Ormaistegui y Gaviria con  
poca resistencia. Enemigo destruyó  
viaducto Ormaistegui. Fuerzas co-  
luna Urretagoyena ha ocupado  
Usurbil y Aguinaga dominando Oriz.  
Se preparan movimientos fuerza pa-  
ra futuras operaciones.  
Descripto y firmado original  
El Capt Em. Beorlegi  
Vogel see  
Linos.  
04 35' Sel 18-9-36  
41



**8. eranskina:** Gipuzkoako Fronte Popularraren baitako Usurbilgo Milizien parte medikoa, irailaren 6koa.

CDMH, PS SANTANDER L, C.621 Esp.2 F.006

FRENTE POPULAR DE GUIPÚZCOA  
MILICIAS DE USURBIL

Félix Múgica.....herido de ..... Elgoibar  
Esteban Elizondo.....herido de Renteria..Elgoibar  
Ramón Santa Cruz.....herido de Oñate..... Azpeitia  
José Luis Fernandez.....herido de Zarpadores  
Lesmes Odriozola.....✓muerto de Renteria  
Luis Portugal.....✓muerto de Renteria  
Nicasio Arín.....herido Betelu .....Elgoibar  
Justo Aranguren.....herido de Azpeitia  
Abel Martín.....herido de Renteria  
José Lete.....herido de Renteria  
Antonio Astigarraga.....herido de Renteria  
Emeterio Gambrina.....herido de Montalbo de (Baracaldo)  
Marcelino Miranda.....herido de Bilbao  
José Saez Asarta.....✓muerto de San Sebastián

*Los miembros del Frente Popular  
Jose Luis Forreserra  
Amador Larrañaga  
Cecilio Lopez Arana  
Blas Larrañaga*

*Usurbil 5 de Septiembre 1938*

9. eranskina: Gipuzkoako Fronte Popularraren baitako Usurbilgo Milizien parte medikoa, irailaren 7koa.

CDMH, PS SANTANDER L, C.621 Esp.2 F.007

FRENTE POPULAR DE GUIPÚZCOA  
MILICIAS DE USURBIL

Día 7 de Septiembre de 1936.

X Jesúa Montoya , Teniente , herida de bala en el muslo. ....Eibar  
X Antonio Peña, contusión en pierna, miliciano de Deusto.  
X Santiago Garcia, contusión muslo izquierdo, miliciano de Zumárraga.  
X Juan Meranza, contusión de rodilla derecha, guardia de asalto de Bilbao.  
X Nemesio Sobredo, contusiones generalizadas, miliciano de Deusto.  
X Francisco Gascón, herida de bala en región supraescapular.....Eibar.  
X Braulio Losa, quemaduras y contusiones en tobillo derecho, miliciano Pop  
tugaleta.  
† Pedro Bastida, herido de bala en región palmar derecha, miliciano de  
Elgoibar..... Eibar.  
X Ignacio María Errazquín, herida cortante en la frente.  
X Lucio Lopez, esguinze de pie derecho, guardia de asalto de Bilbao.  
X Eugenio Vallés, del flemón dentario , guardia civil de Bilbao.( baja  
condicional).  
X Juan Iturbe, lesión de pie dercho , miliciano de Bilbao. (baja con-  
dicional).  
X Manuel Murguia, herida de metralla en ambas extremidades inferiores  
con fractura de ambos fémures, miliciano de Luchana.  
X Martín Landa, herida de bala en un costado..... Elgoibar.

*Los médicos del Frente Popular  
Jose Luis Forcive de la, Amador Kanamendi,  
Amador Lopez Maupa y Blas Labadia  
Usurbil a 7 de Septiembre 1936*

L  
621/2  
6

10. eranskina: Gipuzkoako Fronte Popularraren baitako Usurbilgo Milizien parte medikoa, irailaren 8koa.

CDMH, PS SANTANDER L, C.621 Esp.2 F.008

Parte sanitario del día 8. Septiembre 1936

X Juan Villar - guardia de asalto procedente de Bilbao - esquinca del pie izquierdo

X Fonbio Alvarez - guardia de asalto procedente de Bilbao - una ~~en~~ <sup>en</sup> ~~car~~ <sup>car</sup> ~~na~~ <sup>na</sup> ~~dedo~~ <sup>dedo</sup> por ~~do~~ <sup>do</sup> del pie izquierdo

X Juan José Mugica Listiaga - 23 años. miliciano del grupo de Reserpa de San Juan. Herida de bala con orificio de entrada y salida en la pierna izquierda con fractura completa de tibia y perone a nivel de su tercio medio.

X Pablo Garin : soldado de artillería. Heridas de metralla extensa falleció a los pocos instantes de su ingreso.


X Gerardo Louzale : soldado de artillería de la 6ª batería - heridas de metralla, ingresó en estado preagónico y falleció a los pocos momentos.

Medicos de guardia.

J. G. Goyechee - A. Larrauri

A. Lopez Arango - B. Sabedra

Usurbil - 9 de Septiembre - 1936



L 621/2  
7

11. **eranskina**: Josefa Galarmendi Aizkorreta milizianoaren mobilizazio-negoziatua  
Gipuzkoako Gerra Komisariak egina.  
CDMH, PS BILBAO, C.93 1. esp. F225

46

Comisariado de Guerra                      Negociado de Movilización

Nombre del miliciano ..... Josefa .....

Apellidos **Galarmendi Aizcorreta** .....

Fecha del nacimiento **24 de Agosto de 1917** .....

Estado ..... **Soltera** .....

Lugar de donde procede **Usúrbil** .....

Domicilio **Casconea** .....

¿Ha servido en el Ejército? .....

Arma y Cuerpo .....

Categoría actual ..... **Miliciana (cocina)** .....

Columna o frente donde actúa ..... **Cocina** .....

Grupo o milicia a que pertenece ..... **Usúrbil** .....

Nombre de su Jefe ..... **Comité** .....

Día en que empezó a prestar servicio ..... **25 de Agosto** .....

Partido a que esté afiliado ..... **Solidaria** .....

Conforme con la presente ficha  
El Jefe de **Grupo** .....


**Eustaquio Caberas**

Milicias de Usúrbil

93/1  
225

12. **eranskina:** Euzkadiko Gobernuko Osasun Militarreko Buruzagitza Nagusiaren agiri horretan ziurtatzen da Hilario Retenaga Bengoa milizianoa irailaren 5ean zauritua izan zela Usurbilgo frontean, eskuineko izterrean balaz.

CDMH, PS SANTANDER L, C. 286, Esp. 1\_6, F. 4

  
GOBIERNO DE EUZKADI  
DEFENSA  
JEFATURA SUPERIOR DE SANIDAD MILITAR

INDEMNIZACIONES PERSONALES  
DE GUERRA  
10 DIC. 1936  
ENTRADA

NÚM. ....

*R*


La Jefatura Superior de Sanidad Militar,  
**CERTIFICA:**

Que de los datos obrantes en su poder, resulta que el mili-  
ciano Hilario Retenaga Bengoa  
de 23 años de edad, natural de Lezo  
....., de estado soltero....., y perteneciente  
al Batallón Milicias Vascas.....  
resultó herido el día 5 de setiembre..... de 1936, en el  
frente de Usurbil....., siendo su lesión la siguiente:  
Herida de bala en el muslo derecho.  
.....  
.....

-----  
habiendo estado hospitalizado desde el día en que cayó herido hasta  
el día 9 de octubre..... de 1936, en que se le dió el ALTA.

Y para que conste y surta sus efectos para el cobro de  
la indemnización de guerra.....  
se extiende la presente certificación en Bilbao  
a diez..... de diciembre..... de mil novecientos  
treinta y seis.....

EL JEFE DE ESTADO Y ENFORM.  
SANIDAD MILITAR

  
*J. E. N. S. A.*

**13. eranskina:** Meabe 4. Batailoia (UHP) zutabearen dokumentu honetan, desagertutako Asarta Konpainiako kapitain zen Jose Exposito Gandiagak egiaztatzen du Jose Garcia Aldaia milizianoa irailaren 12an zauritu zutela Usurbilgo San Esteban frontean, eta bere egoera larria zela medio, ezin izan zutela Londres hoteleko ospitaletik atera izan.

CDMH, PS SANTANDER L, C. 294, Esp. 3\_6, F. 1

